Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3813

AGINDUA, 2009ko ekainaren 23koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Agindu honen bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkariaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa ebazten da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.a) artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Bizkaiko Ordezkaritzako lurralde-ordezkariaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egin zuen eta sail horretako sailburuak eman zuen 2005eko azaroaren 8ko Aginduko laugarren oinarriaren arabera (2005eko azaroaren 28ko EHAA, 226. zenbakia), honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ana Isabel Valenciaga Zugasti andrea Bizkaiko lurralde-ordezkari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2009ko uztailaren 2tik aurrera hartuko du indarra.

Hirugarrena.– Agindu honek bide administratiboa amaitzen duenez, nahi izanez gero, agindua eman duen organoari berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 23a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3813

ORDEN de 23 de junio de 2009 de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve la convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Delegado Territorial de Educación en Bizkaia, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.a) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en la Base Cuarta de la Orden de 8 de noviembre de 2005 (BOPV n.º 226 de 28 de noviembre de 2005), del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se anunciaba convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Delegado Territorial de Educación en Bizkaia, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación,

RESUELVO:

Primero.– Designar a Dña. Ana Isabel Valenciaga Zugasti como Delegada Territorial de Educación en Bizkaia.

Segundo.– Dicho nombramiento surtirá efectos a partir de el día 2 de julio de 2009.

Tercero.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano que la hubiera dictado en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de junio de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.